



# GAZTERIA ZERBITZUA



## GAZTEENTZAKO JARDUERAK: 2026KO APIRILA-MAIATZA



LG NA.26-2025



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

Instituto Navarro de la Juventud  Nafarroako Gazteeriaren Institutua

 punto de información juvenil | gazteeriaren informazio gunea  
Mutilva-Mulilloa

EKITALDIAK

# GAZTE EGUNA

Datorren **apirilaren 25ean**, ez ezazu galdu Arangurenen ospatuko den **Gazte Eguna**.

Eguna hamaiketakoarekin hasiko da, eta bazkari autogestionatuarekin jarraituko du. Bazkariaren ostean, jokoz eta musikaz betetako arratsalde bat, **elektrotzaranga** batek animatua. Amaitzeko **Ibarreko DJ'ekin** gozatzeko aukera izango dugu gauaz.

Ekitaldiaren inguruko informazio guztia **Gaztearen taldearen instagramean (@gaztearen)** zabalduko da, jarraitu itzazu ezer ez galtzeko!

Udalak JOAN-ETORRI bus zerbitzua antolatuko du.



# JOAN-ETORRI



Ohitura den bezala, **Gazteen Egunean** hasiko da **JOAN-ETORRI 2026** zerbitzua. Zerbitzu honen helburua da 16 urtetik gorako herritarren artean alkoholaren eta beste substantzia batzuen kontsumoak eragindako trafik-istripuak prebenitzea, betiere 30 urte arteko gazteei lehentasuna emanez.

Aurten Ibarreko Kontzejuetako gazte ordezkariekin adostu dira helmugak eta ordutegiak.

GAZTE EGUNA - Dohainik	ZOLINAKO FESTAK - 4 €
<b>Apirilak 25</b> Joanekoa: 10:00 Itzulikoa: 03:00   04:30   06:30	<b>Uztailak 24 eta 25</b> Joanekoa: 23:30 Itzulikoa: 03:30   06:30
<b>GARESEKO FESTAK - 8 €</b>	<b>LIZARRAKO FESTAK - 8 €</b>
<b>Uztailak 25</b> Joanekoa: 23:00 Itzulikoa: 06:30	<b>Abuztuak 1</b> Joanekoa: 23:00 Itzulikoa: 06:30
<b>ARANGURENEKO FESTAK - 4 €</b>	<b>AGOITZEKO FESTAK - 8 €</b>
<b>Abuztuak 7 eta 8</b> Joanekoa: 23:30 Itzulikoa: 03:30   06:30	<b>Abuztuak 8</b> Joanekoa: 23:00 Itzulikoa: 06:30
<b>TAFALLAKO FESTAK - 4 €</b>	<b>LABIANOKO FESTAK - 4 €</b>
<b>Abuztuak 15</b> Joanekoa: 23:00 Itzulikoa: 06:30	<b>Abuztuak 28 eta 29</b> Joanekoa: 23:30 Itzulikoa: 03:30   06:30
<b>TAXOAREKO FESTAK - 4 €</b>	<b>NAFARROA OINEZ ZIZUR NAGUSIA ETA GALAR - 4 €</b>
<b>Irailak 4 eta 5</b> Joanekoa: 23:30 Itzulikoa: 03:30   06:30	<b>Urriak 18</b> Joanekoa: 09:30 Itzulikoa: 19:30


Oraindik egin ez baduzue, txartelak erosteko erabiliko den webgunean <https://aranguren.voyvengo.es>, alta ematera animatzen zaituztegu.

Beti bezala, 18 urtetik beherakoek baimena entregatu beharko dute, eta Udalaren webgunetik jaitsi edo **31192 Gaztegunean** eskatu ahal izango dute.



ZERBITZUAK

# PODCASTA



## 31192 Gaztegunearen Pocasta iritsi da!

Gazteriaren ahotsak ardatz izango dituen proiektu berri bat estreinatzen dugu.

**Gazteek eta gazteentzat egindako podcast bat** sortuko da, bertan ibarrari eta bere gazteriari buruzko egungo gaiak landuko dira.

Proposamenak ongi etorriak dira, bai gaiiei buruz, bai etor daitezkeen pertsoniei buruz ere. Entzuten zaituztegu!

Gune aske, dinamiko eta dibertigarria izango da, Aranguren Ibarreko gazteei buruzko ideiak, istorioak, bitxikeriak... partekatzeko.

Zatoz eta informa zaitetz.



ZERBITZUAK

# GAZTE ZIRKULUA

**Hitz egiteko, partekatze eta elkartzeko gune bat**

**31192 Gaztegunean** topaketa gune berri bat ireki nahi dugu: **Gazte Zirkulua**.

**Edozein gairi buruz** eztabaidatzeko, zure iritzia emateko edo, sinpleki, nahi duzunari buruz hitz egiteko gune libre eta segurua. Hemen ahots guztiek garrantzia dute eta ideia guztiak ongi etorriak dira.

- ✓ Gaurkotasuna interesatzen zaizu?
- ✓ Musikaz, telebista edo sare sozialetan hitz egin nahi duzu?
- ✓ Burutik pasatzen zaizun zerbait partekatzeko beharra duzu?

Hau zure lekua da.

Además, el Círculo Juvenil es una oportunidad perfecta para:

- ✓ Aurpegiak ikusteko
- ✓ Elkar hobeto ezagutzeko
- ✓ Lagun berriak egiteko
- ✓ Ikuspuntu desberdinak entzuteko

Gune hurbila, dinamikoa eta errespetuzkoa, non garrantzitsuena zu eta zer esan behar duzun da.

Etor zaitez, parte hartu eta zirkuluaren parte izan!

Zure zain gaude.



ZERBITZUAK



# 31192 LEHIAKETATXOA

**Astearteetako Lehiaketatxoa iritsi da!**

Adi astearteetako 20:00etan gure instagrameko istorioetara, **lehiaketatxo bat** sortu dugu, zeinean **azkarrenak sari sorpresa bat izango du.**

Galderak **soilik ordu batez** erantzun ahalko dira.

**21:00etan desagertuko dira**, oso adi egon beharko zara beraz.

**¿Nola doa?**

- Erantzun era zuzenean gure istorioetako galderak.
- **Zenbat eta azkarrago erantzun, orduan eta puntu gehiago eskuratuko dituzu.**
- Partaide azkarrenak rankingaren goiko aldean egongo dira, eta hila-betero irabazleak sari bat eskuratuko du.

Astero gai ezberdin bat egongo da, adi gure whatsapppeko buletinera, pistaren bat egon liteke...

Jarraitu gatzazu Instagramen, eta piztu jakinarazpenak ez galtzeko.

Asteartetan, 20:00tan, soilik ordu 1.

**¿Azkarrena izango zara?**



# WHATSAPPEKO KOMUNITATEA

Jakin nahi al duzu zer gertatzen 31192 Gaztegunean, ezer galdu gabe?

**WhatsAppeko komunitate** bat sortu dugu informazio guztia une oro partekatzeko:

- Jarduerak eta ekitaldiak
- Podcastaren berriak
- Gazte Zirkuluaren datak
- Lehiaketatxoak gogorarazteko oharrak
- Eta beste sorpresa asko

## **Astelehenero 20:00etan**

asteko berriak eta gogorarazpenak bidaltzen ditugu, guzti honen berri izan dezazun.

Antolatzen dugun guztiaren berri izateko modurik azkarrena eta erosoena da.

- Zuzeneko abisuak jaso
- Ez galdu jarduerarik
- Berriak jasotzen lehen izan

Galdetu Gaztegunean gehitu zaitzagun.

Izan komunitatearen parte eta jarraitu konektatuta!



ZERBITZUAK

# OSTIRALETAN... JOLASTERA!



**Ostiralero berritasunak  
ditugu Gaztegunean**


Hilero txapelketa ezberdinak antolatzen ditugu zure trebezia eta estrategia probatzeko...

Ez dizugu dena kontatuko... ikustera etorri beharko zara.

Lehia, emozioa eta, batez ere, giro ona izango da.  
Bakarrik etor zaitezke, zure koadrilarekin, bikoteka...

Ostiraletan 31192 Gaztegunean.

Parte hartzera ausartzen zara?  
Etorri, lehiatu eta erakutsi zer giteko gai zaren.



PROGRAMA ETA IKASTAROAK

# ANIMARANETXEA ASTE SANTUA

**Aste Santu honetan goizak  
dibertsioz betetzen dira!**

Aste Santu honetan, 31192 Gaztegunek **4 jarduera ezberdin** antolatzen ditu arratsaldero gurekin goza dezazun. **Guztietan eman dezakezu izena, edo gehien interesatzen zaizkizunetan bakarrik, modu independentean!**

- ✓ **Apirilak 7. Talo tailerra:** gozatu gure gunean hamaiketako goxoaz.
- ✓ **Apirilak 8. Perurenaren Museoa:** historiaz, tradizioz eta bitxikeriaz beteriko gunea, harrituko zaituena.



- ✓ **Apirilak 9. Zolinako hipika:** ibilaldi desberdin eta berezia ingurune natural paregabea.



- ✓ **Apirilak 10. Urederraren iturburua:** naturarekin konektatzeko eta aire garbia arnasteko espazio ezin hobea.



2014-1996



Apirilak 7, 8, 9 eta 10



9:30 – 13:30



Martxoaren 13tik 24ra  
(gutxienez 25 eta gehienez 55 pertsona)



4 jardueren prezioa: 15 € erroldatuek  
eta 25 € ez erroldatuek.  
Jarduera soltea: 4 € erroldatuek  
eta 6 € ez erroldatuek.



Gaztelania eta euskara

# DANTZA URBANOA

## Energia eta adierazpena Leidys Carabanterekin

Leidys Carabante energia, kultura eta mugimendua da. Estilo berezia eta dantza urbanoa ulertzeko modu berritzailea markatu duten bi kulturen artean hazi zen. Dantza klasikoa Nafarroako Dantza Eskolan, *hip hop*-a, dantza modernoa eta *dancehall*-a Le Bal eta Pauso K-n.

Quibdótik (Chocó, Kolonbia) nazioarteko agertokietara. Dantzatik askoz harago doan esperientzia bat iritsi da.

Leidysekin ez dituzte pausoak bakarrik erakusten. Guneak sortzen ditu, non:

- Beldurrik gabe adierazi ahal zara
- Zure sormena bultzatu dezakezu
- Beste pertsona batzuekin harremanetan jarri
- Barruan daramazuna komunikatzeko modu berriak aurkitu
- Estilo urbanoak eta garaikideak nortasun propioarekin nahasi

Musika eta mugimendua gustuko badituzu eta esperientzia desberdin bat bizi nahi baduzu... jarduera hau zuretzat da. Zure zain gaude!



2014-1996



Apirilak 1, 8, 15, 22 eta 29  
(asteazkenetan)



19:00 – 20:00



Martxoaren 13tik 24ra  
(gehienez 20 pertsona)




Doan



Gaztelera



31192 Gaztegunea





PROGRAMA ETA IKASTAROAK

# DJ IKASTAROA

Imanol Reyesek emango duen ikastaro hau **DJ munduan lehen urratsak eman** nahi dituzten gazteei zuzenduta dago.

Formazio praktiko eta dinamiko baten bidez, DJ-aren oinarriak ikasiko dituzue: oinarrizko ekipoaren erabilera, abestien nahasketa, eritmoaren kontrola eta musika aukeraketa.

Ikastaro honek **sormena, musika-adierazpena eta teknologiarekin lan egitea sustatzen** ditu, musikaz modu aktiboan gozatzeko edo maila aurreratuagoan trebatzen jarraitzeko oinarri sendoa eskainiz.



2010-1996



Apirilak 10, 17 eta 24  
(ostiraletan)



18:00 – 19:30



Martxoaren 20tik 31ra  
(gehienez 6 pertsona)



Doakoa



Gaztelaniaz



31192 Gaztegunea

PROGRAMA ETA IKASTAROAK

# KALISTENIA ETA HANDSTAND IKASTAROA



Sasoian jarri eta zerbait berria ikasi nahi dutenentzat proposamen ezberdin bat iritsiko da maiatzean 31192 Gaztegunera.

4 saiotan zehar indarra landuko dugu **gure gorputzaren pisuarekin** eta pinua eraikitzen hasiko gara pausoz pauso. Kontua ez da ariketa fisikoa egitea bakarrik, kontrola, oreka eta norbere gorputzarekiko konfiantza irabaztea baizik.

Ikastaroaren osagaiak:

- 2 kalistenia saio, benetako indarra garatzeko.
- 2 *handstanderako* hastapen-saio, maila bakoitzera egokitutako progresioekin.

Ez da aurretiazko esperientziarik behar. Pertsona bakoitzak bere abiapuntutik egingo du lan.

Erronka egin nahi baduzu, fisikoki hobetu eta zure gorputza noraino hel daitekeen jakin, haxe da zure aukera.



2010-1996



Maiatzak 6, 13, 20 eta  
27 (asteazkenetan)



19:00 – 20:00



Apirilaren 13tik 24ra  
(gehienez 20 pertsona)



Doan



Gaztelania eta euskara



31192 Gaztegunea



JARDUERA ETA IRTEERAK



# MOTOR KIROL ESPERIENTZIA LOS ARCOS ZIRKUITUAN



31192 Gazteguna Gazte Zentroak **Los Arcos zirkuituan esperientzia bat** bizitzera gonbidatzen zaitu, non benetako lasterketa-auto gidari bat bezala senti zaitezkeen eta motor kirolen mundua barrutik bizi dezakezun.

Paketeak karting praktikak, bi lagunentzako lasterketa bat eta zirkuituaren bisita gidatua barne hartzen ditu. Bikote azkarrenak irabaziko du lehiaketa.

Taldean gozatzeko eta zure koordinazioa eta talde-lana probatzeko jarduera ezin hobea.

Oharra: Gurasoen edo legezko tutorearen baimena behar da.



2010-1996



Apirilak 18 (larunbata)



9:00 – 14:00



Martxoaren 27tik apirilaren  
7ra (gutxienez 25 eta  
gehienez 50 pertsona)



35 € erroldatuak eta 50 € ez  
erroldatuak. Los Arcoseraino  
bidaia, jarduera eta Kartingeko  
istripu aseguruak barne.



Gaztelania eta euskara



Los Arcoseko Zirkuitua



JARDUERA ETA IRTEERAK

# BAZTAN ABENTURA PARK

Prestatu zaitez abentura eta emozio jardunaldi batera **Baztan Abentura Parken!** Aurten jarduera hau denok modu seguru eta dibertigarrian goza dezazuen diseinatu dugu, adrenalina estra bat bizi nahi dutenentzako aukerak barne.

Deskonektatzeko, partekatze eta taldean esperientzia berriak bizitzeko aukera ezin hobea.

Sartutako jarduerak:

- Oinarrizko jarduera (guztientzat): Via ferrata + Tirolina.
- Aparteko jarduera (18 urtetik gorakoentzat bakarrik): Via ferrata + Tirolina + Pendulua.

Pendulua 18 urtetik gorako parte-hartzaileentzat bakarrik egiten da, txanda espezifiko batean, eta, behar izanez gero, berariazko baimena behar da.

Jarduera hau aukerakoa da eta ez da programa nagusiaren parte, oinarrizko jardueretan denek elkarrekin parte hartu ahal izatea bermatuz.

Anima zaitez parte hartzera eta etorri Gaztediaren Etxearekin beste goiz berezi bat pasatzera!



2014-1996



Maiatzak 16  
(larunbata)



9:00 – 14:00



Apirilaren 20tik maiatzaren  
1era (gutxienez 25 eta  
gehienez 50 pertsona)



Oinarrizko jarduera:  
15 € erroldatuek eta  
25 € ez erroldatuek.  
Aparteko jarduera:  
25 € erroldatuek eta  
35 € ez erroldatuek.



Gaztelaniaz eta euskaraz



Baztan Aventura Park



# INFORMAZIOA



Tailer, ikastaro eta jardueretarako plazak mugatuak dira. Ezarritako gutxienekora iritsi ezean, jarduera bertan behera geratuko litzateke.

Jarduera betez gero, izena eman duten pertsonen artean zozketaz egingo da, Aranguren Ibarrean erroldatutako gazteriari lehentasuna emanez. Zozketa ondoren, onartutakoei SMS bidez jakinaraziko zaie.


Izena emateko **948 012 012** telefonora deitu behar da 8:00etatik 18:00etara, edo Udalaren webgunean QR kode honen bidez, **JARDUERETAN IZEN-EMATEAK** botoian klik eginez.

Programazioan ematen den edozein aldaketa sare sozialetan eta Udaleko webgunean argitaratuko da.





## GAZTERIA ARLOA


 [juventud@aranguren.es](mailto:juventud@aranguren.es)


 948 23 75 58


## ESPACIO JOVEN 31192 GAZTEGUNEA

 [espaciojoven31192@aranguren.es](mailto:espaciojoven31192@aranguren.es)

 689 80 87 32

 @ej31192gg

 Espacio Joven 31192  
Gazte Gunea

 Anaitasuna etorbidea, 27  
31192 Mutiloa